

**ANEXO I**  
**ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA**  
**EGITEKO TXANTILOIA**  
**ANEXO I**  
**PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA**  
**ANUAL DE ÁREA O MATERIA**

**Urteko/ikasmilako programazio didaktikoa**  
*Programación didáctica anual/de curso*

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	ABADIÑO BHI	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015071
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	DBH	<b>MAILA:</b>	1.Maila
<b>arloan/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	MATEMATIKA		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>	ZIENTZIAK		
<b>diziplina barruko oinarritzko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	KONPETENTZIA MATEMATIKOA		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	AINTZANE MENDIOLA MERTXE CUEVAS	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2022-2023

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

- 1) Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
- 2) Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
- 3) Elkarbizitzarako kompetentzia.
- 4) Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
- 5) Izaten ikasteko kompetentzia.

<b>Kompetentzia espezifikoak</b> <i>Competencias específicas</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
---	---

<p><b>1. Matematikaren berezkoak diren eguneroko bizitzako problemak interpretatzea, modelizatzea eta ebaztea, zenbait estrategia eta arrazoibide aplikatuz, zenbait jardunbide arakatzeko eta soluzio posibleak lortzeko.</b></p>	<p>1.1 Problema matematikoak interpretatzea, emandako datuak antolatuz eta erlazionatuz eta formulatutako galderak ulertuz.</p> <p>1.2 Ikaste-egoerak eta problemak ebazteko estrategiak bilatzen lagunduko duten irudikapen matematikoak egitea (marrazkiak, taulak, eskemak)</p> <p>1.3 Hainbat tresna eta estrategia aplikatzea, problema bat ebazten lagunduko duten egokiak aurkitu arte.</p> <p>1.4 Problema baten soluzio matematiko arrazoitu posibleak lortzea, ezagutzak ete behar diren tresna teknologikoak mobilizatuz.</p>
<p><b>2. Problema baten soluzioak analizatzea, teknika eta tresna desberdinak erabiliz eta lortutako erantzunak ebaluatuz, ikuspuntu logikotik haien baliozkotasuna eta egokitasuna eta ondorio globala egiaztatzeko.</b></p>	<p>2.1 Problema baten soluzioen zuzentasun matematikoa egiaztatzea, ebazteko beste estrategia posible batzuk analizatuz.</p> <p>2.2 Problema baten soluzioen zuzentasun matematikoa egiaztatzea, ebazteko beste estrategia posible batzuk analizatuz.</p>
<p><b>3. Problema eta aieru berriak modu autonomoan formulatzea, zenbait jakintza erlazionatuz eta irudikapen matematikoa emanaz, tresna teknologikoen laguntzarekin, ezagutza matematiko berria sortzeko.</b></p>	<p>3.1 Aieru errazak modu gidatuan ezagutzea, patrioiak, propietateak eta erlazioak analizatuz eta haien baliozkotasuna zenbait argudioen bidez arrazoituz.</p> <p>3.2 Emandako problema baten aldaerak planteatzea, problemaren daturen bat edo baldintzaren bat aldatuz.</p> <p>3.3 Arrazoibide matematikoan oinarritutako aieruak ikertzea, bistartzea, material manipulatioak eta digitalak, eta hizkuntza aljebraiko eta grafikoaren aukerak erabiliz.</p>
<p><b>4. Pentsamendu konputazionalaren printzipioak erabiltzea, datuak antolatuz, zatika deskonposatuz, patrioiak ezagutuz, eta algoritmoak interpretatuz, aldatuz, orokortuz eta sortuz, egoerak modelizatzeko eta problemak eraginkortasunez ebazteko.</b></p>	<p>4.1 Patrioi errazak ezagutzea, datuak antolatzea eta problema bat zati sinpleagotan deskonposatzea, haren interpretazio konputazionala erraztuz.</p> <p>4.2 Askotariko egoerak modelizatzea eta problemak modu eraginkorrean ebaztea, oinarritzko algoritmoak interpretatuz, aldatuz eta sortuz.</p>
<p><b>5. Elementu matematikoen arteko loturak ezagutu eta</b></p>	<p>5.1 Ezagutzen (aritméticoak, aljebraikoak eta geometrikoak) arteko erlazioak eta esperientzia matematikoak- hala nola patrioiak</p>

<p><b>erabiltzea, kontzeptuak eta prozedurak elkarrekin lotuz, matematikaren osotasun integratu gisako ikuspegia garatzeko.</b></p> <p><b>6. Beste irakasgai batzuetan eta egoera errealean inplikaturako matematika identifikatzea, kontzeptuak eta prozedurak elkarrekin lotuz, askotariko egoeretan aplikatzeko.</b></p> <p><b>7. Kontzeptu, prozedura, informazioa eta emaitza matematikoak modu indibidual eta kolektiboan irudikatzea, zenbait teknologia erabiliz, ideak bistartzeko eta prozesu matematikoak egituratzeko.</b></p> <p><b>8. Kontzeptu, prozedura eta argudio matematikoak modu indibidual eta kolektiboan komunikatzea, ahozko hizkuntza, hizkuntza idatzia edo grafikoa eta terminologia matematiko egokia erabiliz, idea matematikoei esanahia eta koherentzia emateko.</b></p> <p><b>9. Trebetasun pertsonalak garatzea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, errorea ikaskuntza-</b></p>	<p>identifikatzea edo errealtaterako begirada matematikoa sustatzea-ezagutzea.</p> <p>5.2 matematikaren alorren (algebra, geometria...) arteko loturak indartzea, material manipulagarriekin, morroi matematikoekin eta beste baliabide digital batzuekin interakzioan jardunez, eta problemak ebazteko oinarriko estrategiak garatuz.</p> <p>6.1 Mundu errealean eta matematikaren artean loturak ezartzea, ikerketa zientifiko eta matematikoaren berezko prozedurak erabiliz: neurtzea, sailkatzea, irudikatzea, ondorioztatzea, iragartzea eta komunikatzea, eguneroko bizitzako egoeretan.</p> <p>6.2 Matematikaren eta beste irakasgai batzuen arteko lotura logikoak identifikatzea, zenbait esparrutako ezagutzak integratuz eta testuinguruan kokaturako problemak ebartziz.</p> <p>6.3 Matematikak gizateriaren aurrerabideari egindako ekarpenak ezagutzea, egungo gizarteak aurre egin beharreko erronkei konponbidea ematen laguntzen dutenak.</p> <p>7.1 Kontzeptu, prozedura eta emaitza matematikoak zenbait tresnarekin irudikatzea, informazioa partekatzeko duten erabilgarritasuna baloratuz.</p> <p>7.2 Irudikatze tresnak (hitzekoak, ikusizkoak, manipulatioak eta digitalak) hautatzea eta erabiltzea, askotariko arazoibide-moduen arteko transferentzia bultzatuz eta mezuen zehaztasunari eta koherentziari bidea emanez.</p> <p>8.1 Informazioa komunikatzea, hizkuntza matematiko egokia erabiliz (ahoz eta idatziz) eta arazoibideak, prozedurak eta ondorioak deskribatuz eta justifikatuz.</p> <p>8.2 Eguneroko bizitzako esparru pertsonal eta sozialetan dagoen hizkuntza matematikoa ezagutzea, zehatz-mehatz, zorrotz eta koherentziaz erabiliz.</p>
--	--

<p><b>prozesuaren parte gisa onartzeko estrategiak praktikan jarritz eta ziurgabetasun-egoeren aurrean egokituz, helburuen lorpenean jarraitasuna hobetzeko eta matematika ikasten gehiago gozatzeko.</b></p> <p><b>10. Gizarte-trebetasunak garatzea, besteen emozioak eta esperientziak ezagutz eta errespetatuz, eta esleitutako rolak dituzten talde heterogeneoetan proiektuetan aktiboki eta gogoetatsu parte hartuz, matematikako ikasle gisa identitate positiboa eraikitzeko, ongizate pertsonala eta taldearena sustatzeko eta harreman osasungarriak sortzeko.</b></p>	<p>9.1 Norberaren emozioak kudeatzea eta autokontzeptu matematikoa garatzea, erronka berrien aurrean itzaropen positiboak sortuz.</p> <p>9.2 Matematika ikasteko egoerei aurre egitean motibazio positiboa eta jarraitasuna erakustea, kritika arrazoitua onartuz.</p> <p>9.3 Erroreak onartzea, hobetzeko aukera eta erronka berriei modu sortzailean aurre egiteko ahalbidea izan daitezkeela ezagutz.</p> <p>10.1 Talde heterogeneoetan lan egiten aktiboki kolaboratzea eta harremanak ezartzea, eraginkortasunez komunikatuz, modu kritiko eta sortzailean pentsatuz, erabakiak hartuz eta iritzi informatuak emanez, ingurune presentzialetan zein lineakoetan.</p> <p>10.2 Taldeko zereginen banaketa kudeatzea, taldeari balioa emanez, inklusioaren eta entzute aktiboaren alde eginez, esleitutako rolaz eta taldeari egiten dion ekarpenaz arduratuz, ingurune presentzialetan zein lineakoetan.</p>
---	---

**ARAZO EGOERA** [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

**SITUACIÓN PROBLEMA** [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

**UNITATE DIDAKTIKOA- ARAZO EGOERA: (HAMARTARRAK LANTZEKO TALDE LANA, EGITURA KOOPERATIBOAK eta IKTak ERABILITA)**

Arazoa: Limoizko bizkotxo bat egiten badugu, zein izan behar da zati bakoitzaren salmenta-prezioa dirurik ez galtzeko? Osagaiak non erosiko genituzke eta zein preziotan? Bizkotxo bakoitzeko zenbat zati egingo genituzke?

Helburuak:

1. Informazio aipagarria bilatu, aztertu eta laburbildu, helburu ekonomikoa lortu ahal izateko erabakiak hartu ahal izateko. Erabakiak hartzeko orduan aldagai ekonomikoez gain, jasangarritasuna bermatzen duten erabakiak lehenetsiko dira (tokian tokiko merkataritzaren erabilpena adibidez).
2. Arazo egoerari egokitutako kalkulu eta proportzioak egin.
3. Ondorioak modu eraginkor batean komunikatu, aurkezpenerako beharrezkoa den informazioa prestatuz.

## **OINARRIZKO JAKINTZAK**

### **SABERES BÁSICOS**

#### **A. ZENTZU NUMERIKOA**

- **Zenbaketa:**

- ✓ Problema matematikoak eta eguneroko bizitzakoak ebaztean zenbatespenak eta kontaketa sistematikoak egiteko estrategiak.

- **Kantitatea:**

- ✓ Zenbaki arrunten erabilgarritasunak eguneroko egoeretan.
- ✓ Zenbatespenak testuinguruak eskatutako zehaztasunarekin egiteko oinarrizko jarraibideak
- ✓ Zenbakiaren tamaina hainbat testuinguruetan ezagutzeko eta konparatzeko jarraibideak. Berretzaile positiboa duten berreturak.
- ✓ Problema matematikoak eta eguneroko bizitzakoak ebazteko testuinguruetan kantitateak behar den zehaztasunarekin adierazteko berretura eta erro errazak.
- ✓ Kantitate bat adierazteko formak, egoera edo problema bakoitzean egokiena hautatuz, eta haien arteko erlazioa eta baliokidetasuna.

- **Eragiketen zentzua:**

- ✓ Idatzizko kalkuluko eta kalkulu mentaleko estrategiak, zenbaki arruntekin, osoekin, dezimalekin eta zatiki errazekin, zenbakizko zuzeneko irudikapenen laguntzarekin ere, testuinguruan kokatutako egoeretan.
- ✓ Batuketaren eta kenketaren, biderketaren eta zatiketaren, eta ber bi egitearen eta erro karratua ateratzearen arteko alderantzizko erlazioak.

- **Erlazioak:**
  - ✓ Oinarrizko faktoreak, multiplo eta zatitzaileak. Zenbaki lehenetako faktORIZAZIOA, problemak askotariko estrategien eta/edo tresnen bidez ebazteko, kalkulagailuaren erabilera barne. Zatitzaile komunetako handiena eta multiplo komunetako txikiena.
  - ✓ Zatikien , dezimalen eta ehunekoen arteko erlazioak.
  - ✓ Zenbaki osoak, zatikiak, dezimalak, berreturak eta erro errazak: ulertzeko eta horiekin kantitateak adierazteko estrategiak.
  - ✓ Patroiak eta zenbakizko erregularitasunak (zenbaki osoak eta zatikiak) zenbait testuinguruetan.
- **Arrazoibide proportzionala:**
  - ✓ Arrazoiak, proportzioak eta proportzionaltasun-konstantea eguneroko testuinguruetan.
  - ✓ Eskalak , planoak eta mapak irudikatzeke problemetan.
  - ✓ Zuzeneko eta alderantzizko proportzionaltasuna eguneroko bizitzako problemen ebazpenean.
  - ✓ Eguneroko testuinguruetan erabili ohi diren oinarrizko ehunekoak. Kalkulu mentala eta idatzizkoa.
  - ✓ Ehunekoen gehikuntza eta murrizketekin eta proportzioekin erlazonatutako problemak zenbait testuinguruetan ebazteko metodoak.
- **Finantza hezkuntza:**
  - ✓ Finantzia-testuinguru pertsonaletan erabakiak hartzeko zenbakizko informazioa eta metodoak.
  - ✓ Familia-ekonomiako diru-sarrerak eta gastuak kudeatzeko metodoak.

## B. NEURRIAREN ZENTZUA

- **Magnitueda:**
  - ✓ Objektu fisikoen eta matematikoen atributu neurgarriak eta horien arteko erlazioa.
  - ✓ Unitate eta eragiketa egokiak neurtzea eskatzen duten problemetan.
- **Zenbatespena eta erlazioak:**
  - ✓ Zenbatespenak eta neurri errealak.
  - ✓ Hurbileko inguruneetan neurtzeko egoeretan behar den zehaztasun-maila
- **Neurketa:**
  - ✓ Formula lauen eta hiru dimentsiokoen luzera eta azalaren formulak lortzeko jarraibideak. Figura errazagoetako deskonposizioa.
  - ✓ Hiru dimentsioko oinarrizko objetuen irudikapen lauak. Perimetro, azalera eta bolumenen kalkulua.

## C. ZENTZU ESPAZIALA

- **Bi eta hiru dimentsioko forma geometrikoak:**
  - ✓ Askotariko forma geometrikoak eguneroko bizitzako objetuetan. Sailkapen informala.
  - ✓ Forma geometriko lau eta hiru dimentsioko ohikoenak: propietateen edo ezaugarrien araberako deskribapena eta sailkapena.
  - ✓ Kongruentzia eta antzekotasuna bezalako erlazio geometrikoak irudi lauetan. Talesen teorema. Pitagorasen teorema.
  - ✓ Hiru dimentsioko forma geometrikoak ohiko tresna digitalekin eraikitzeke teknikak.
- **Lokalizazioa eta irudikapen-sistemak:**
  - ✓ Koordinatu kartesiarren bidezko irudikapen-sistemak eta lokalizazioa.

- ✓ Bi eta hiru dimentsioko objetuen eta horien irudikapen grafikoaren arteko erlazioak.
- ✓ Bi eta hiru dimentsioko formen irudikapen grafikoa, hiru dimentsioko gorputzen bistak eta garapena barne.

- **Mugimenduak eta transformazioak:**

- ✓ Biraketak, translazioak eta simetriak askotariko egoeretan, tresna teknologikoak eta/edo manipulatioak erabiliz.

- **Bistaratzeko, arrazoiak eta modelizazio geometrikoak:**

- ✓ Erlazio geometrikoak: ikerketa hainbat zentzutan eta hainbat alorretan.
- ✓ Problemen ebazpenetan oinarritzko erlazio numeriko eta aljebraikoak irudikatzeko eredu geometrikoak.

#### D. ZENTZU ALJEBRAIKOA ETA PENTSAMENDU KONPUTAZIONALA

- **Patroiak:**

- ✓ Formula eta gai orokorrak: jarraibideak eta erregulartasun errazak behatzearen bidez. Lortzeko estrategiak. Marrazkien, software dinamikoaren eta manipulatioak birtualen laguntzarekin bistaratzeko estrategiak.

- **Eredu matematikoa:**

- ✓ Eguneroko bizitzako egoerak modelizatzeko teknikak, irudikapen matematikoa eta hizkuntza aljebraikoa erabiliz.

- **Aldagaia:**

- ✓ Aldagaien kontzeptua, haren izaera desberdinetan.

- **Berdintza eta desberdintza:**

- ✓ Eguneroko bizitzako egoeretan erlazio linealak eta oinarritzko erlazio koadratiko batzuk irudikatzeko aljebra sinbolikoa
- ✓ Adierazpen aljebraiko errazak. Baliokidetasunak eta oinarritzko eragiketarako problemak ebazpenak.
- ✓ Oinarritzko ekuazio linealak eta koadratikoak: adierazpen aljebraikoen baliokidetasuna eta soluzio-bilaketa eguneroko bizitzako testuinguruetan.

- **Erlazioak eta funtzioak:**

- ✓ Funtzioaren kontzeptu intuitiboa. Magnitudeen arteko erlazioa dakarten mundu errealeko hainbat egoera. Funtzio bat adierazteko zenbait forma.
- ✓ Funtzio linealak. Irudikapena eta ezaugarri orokorrak. Zuzenean maldaren interpretazioa.
- ✓ Erlazio kuantitatibo linealak eguneroko bizitzako egoeretan: erlazioak modelizatzen dituzten funtzioen identifikazioa eta zehaztapena.
- ✓ Funtzio baten informazio garrantzitsuena haren adierazpenetatik abiatuta lortzeko jarraibideak.

- **Pentsamendu konputazionala:**

- ✓ Prozesuak eta problemak ebazpena: deskonposizioa eta beste egoera batzuetarako transferentzia.
- ✓ Oinarritzko algoritmoak interpretatzeko eta aldatzeko estrategiak.
- ✓ Programak eta beste tresna batzuk erabiliz erreproduzitu eta analizatu daitezkeen galderen formulazioa.

#### E. ZENTZU ESTOKASTIKOA

- **Antolaketa eta datuen analisia:**

- ✓ Aldagai kualitatibo eta kuantitatiboen maiztasun-taulen eta grafiko estadistikoen analisia eta interpretazioa.

- ✓ Aldagai bakar bat inplikatzan duten eguneroko bizitzako eta esparru zientifikoko egoeretako datuen bilketa eta antolaketa.
- ✓ Zenbait teknologiaren bidezko irudikapen grafikoak, datuak nola banatzen diren interpretatuz.
- ✓ Zentralizazio- eta sakabanatze-neurriak: interpretazioa eta kalkulua.

- **Iragarritasuna eta ziurgabetasuna:**

- ✓ Fenomeno deterministak eta ausazkoak: definitzen dituzten ezaugarriak.
- ✓ Probabilitatearen nozio intuitiboa. Ausazko fenomeno baten oinarritzko gertaerak eta lagin-espazioa.
- ✓ Proportzioaren, maiztasun erlatiboaren eta probabilitatearen arteko erlazioa eta interakzioa.
- ✓ Laplace-ren erregela eta probabilitateen esleipena esperimendu errazetan.
- ✓ Ausazko fenomenoaren portaera analizatzeko esperimendu errazak: plangintza eta simulazioa morroi digitalekin.

- **Inferentzia:**

- ✓ Populazio baten intereseko ezaugarriak aurkitzea ahalbidetzen duten galdera egokiak.
- ✓ Ikerketa estadistikoetan planteatutako galderari erantzutea ahalbidetzen duten datu garrantzitsuak.

## F. ZENTZU SOZIOAFEKTIBOA

- **Sinesmenak, jarrerak eta emozioak:**

- ✓ Matematika ikasteko jakin-mina, ekimena, jarraitutasuna eta erresilientzia.
- ✓ Ikaskuntzan esku hartzen duten emozioen auto-kontzientzia eta autorregulazioa.
- ✓ Malgutasun kognitiboa eta, behar denean, estrategia-aldaketarekiko irekitasuna, ikaskuntzan errorea onartuz.

- **Talde-lana eta erabakiak hartzea:**

- ✓ Teknika kooperatiboak talde-lanean.
- ✓ Gatazkak kudeatzeko jokabide enpatikoak eta estrategia operatiboak.
- ✓ Erantzukizun pertsonala eta besteen onarpena, ingurune presentzialetan eta lineakoetan taldearen helburuak lortzeari begira.

- **Inklusioa:**

- ✓ Ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasun intrintsekoaren aurreko jarrera inklusiboak; balorazioa ingurune presentzialetan eta lineakoetan.
- ✓ Matematikak giza ezagutzaren esparruan garapenari egin dion ekarpenaren gakoak, inklusioaren ikuspegitik.

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].



**Metodologia honako printzipio** hauetan oinarritzen da:

- ◆ **Ikasleen aurretiko ideietatik abiatzea**, modu esanguratsuan ikasteko gai izan daitezen. Hori dela eta, unitate didaktiko bakoitzean, unitate bakoitzeko edukiak landu baino lehen, ikasleen aurretiko ideiak aztertuko dira eta gero, beharren arabera, irakasleak azalpen orokorrak emango ditu.
- ◆ **Garrantzia ematea ikaskuntzen funtzionalitateari**, gero edukiak zenbait egoeratan aplikatu ahal izateko.
- ◆ **Blokeetako (aritmetika, aljebra, ...) edukien artean dauden loturak azpimarratzea**. Ikasleek, pixkanaka pixkanaka, zenbait jardueraren bidez, edukien artean lotura-sare aberats bat dagoela ikusi beharko dute.
- ◆ **Banakako lana eta taldeko lana** txandakatzea, ikasleek lankidetzan ikas dezaten sustatzeko.
- ◆ **Gaitasunak kontuan izatea**, eta haiek garatzeko jarduerak planifikatzea.
- ◆ **Zenbait adierazpide (hitzezkoa, grafikoa, sinbolikoa) erabil daitezen sustatzea**, bai eta adierazpide batetik beste batera transferentziak egin daitezen sustatzea ere.
- ◆ **Baliabide teknologikorik egokienak erabiltzea**.
- ◆ IKKI egitura kooperatiboak duten garrantzia balioestea batez ere aniztasunari erantzun egokiena emateko.
- ◆ Gelako **aniztasuna** kontutan hartuz protokolo desberdinetan oinarritutako egokitzapenak egingo dira.

**Metodologia hori gauzatzeko** honako jokabide hauek jarraituko dira:

- ◆ **Irakasleak** honako **lan hauek** izango ditu: ikasleek egin beharreko lana sistematizatzea, haien ikaskuntza orientatzea eta bideratzea, lan eta ikaskuntza-erritmo desberdinak errespetatzen dituzten jarduerak eta lanak ematea, eta aldi berean, datozen ikaskuntzetarako oinarritzkoak diren edukiak ematea, ikasgelako lan-giroa zaintzea ikasleei lanak egitea errazteko, eta zehatz-mehatz azaltzea ebaluazio-prozesua eta ebaluatzeke erabiliko diren tresnak.
- ◆ Unitate didaktikoetan, era askotako **jarduerak** aurkeztuko dira; sarrera-jarduerak, garapen-jarduerak, indartzeko edo sakontzeko jarduerak, eta zabaltzeko jarduerak. Hartara, ikasleen aniztasunari eta haien lan eta ikaskuntza-erritmo desberdinei erantzun ahal izango zaie. Komeni da eguneroko testuinguruetatik datozen egoerak aurkeztea jardueretan.
- ◆ Ikasleek **banakako lana** eta **taldeko lana** txandakatuko dute, ahalmen, interes eta trebetasun desberdinak dituzten ikasleen arteko lankidetzara sustatzeko, eta, saio gehienak ikasgelan egingo eta ahal denean gelako ordenagailuak erabiliko dira.
- ◆ Ikastetxeko **proiektuak** (Agenda2030, testuen ulermena...) jorratzen dituzten buruketak eta arazo egoerak proposatuko ditugu.

Erabiliko diren **baliabideak** honako hauek dira:

- ◆ Testu liburua :Matematika 1DBH ZUBIA SANTILLANA (munduak eraikitzen proiektua).
- ◆ Argialetxe desberdinetatik eta internetetik ateratako ariketa osagarriak.
- ◆ Baliabide digitalak.
- ◆ Kalkulagailua.

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p><b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p><b>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN</b> [peso y valor de cada criterio de evaluación].</p>
<p>Ebaluatzerakoan honako tresna hauek erabiliko dira nagusiki:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Idatzizko probak.</b> Banakakoak izango dira, eta honako hauei buruzko informazioa jasoko dute nagusiki: unitate didaktikoetako oinarritzko ezagutzak, arrazoitzeko metodoak, prozedura jakin batzuen aplikazioa Modu antolatuan egingo dira eta ikasleek ebaluazio-irizpideen berri izango dute.</li> <li>• <b>Ikaslearen koadernoak.</b> Ikaslearen koadernoak kontrolatuz, honako alderdi hauek balora ditzakegu: idazmena, egindako jarduerak, ondorioak eta laburpenak egin dituen edo ez, zer prozedura erabili dituen, txukuntasuna...</li> <li>• <b>Eguneroko lana ikasgelan eta etxerako lana.</b> Honako alderdi hauek aztertuko dira nagusiki: interesa, motibazioa, lan-ohiturak, arreta, parte-hartzea, ahozko eta idatzizko mezuak ulertzeko zailtasuna, ebazteko tekniken aplikazioa ...</li> <li>• <b>Ikaslearen auto-ebaluazioa</b> (banakakoa edo taldekoa)</li> </ul>	<p>Kalifikazio-irizpideek baremazio honi jarraituko diote:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ <b>Idatzizko probak:</b> % 80 . Bi proba egingo dira, gutxienez, ebaluaziokoa. Batez bestekoa kalkulatzeko proba guztietan gutxienez 3 atera behar du ikasleak.</li> <li>➤ <b>PROIEKTUREN BAT</b> eginez gero, proiektuaren pisua %10ekoa izango da, eta beraz, Idatzizko probena % 70ekoa</li> <li>➤ <b>Eguneroko behaketa:</b> %20. Honela zehaztuko da:</li> </ul> <p>JARRERA (%10)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gelan portaera</li> <li>• Parte hartzea</li> <li>• Zuzenketak egitea</li> <li>• Euskararen erabilera</li> </ul> <p>LANA (%10)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxeko lanak</li> <li>• Klasean lana</li> <li>• Taldean lana</li> </ul> <p>➤ <b>IKASLEEK EGINDAKO AUTOEBALUAZIOA</b></p>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p><b>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN</b> [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>⤴ Ebaluazioaren bat suspendituta dagoenean, landutako edukiak eta egindako ariketak birpasatuko dira eta zalantzak izanez gero, irakasleari eskatuko diote laguntza. Horrez gain, <b>errekupeazio-azterketa</b> bat izango dute hurrengo ebaluazioan.</li> <li>⤴ Errekupeazio azterketan ebaluazioan sartu diren gai guztiak sartuko dira. Salbuespena honako hau da: azterketa bakarria izan bada gairak ez duena errekupeazioa azterketa horri dagokion gaiarena izango da eta gairak duen atalaren nota gordeko zaio.</li> </ul>	

- Ebaluazioren bat gainditu ez bada, kurtso amaieran errekuaratzeko beste aukera bat izango da.
- Gelako aniztasuna kontutan hartuko da ebaluatzerakoan.

OHARRAK / *OBSERVACIONES*

**IKASLEREN BATEK JARRERA DESEGOKIA BADU GELAN (PARTEREN BAT BADU) ETA JARRERA DESEGOKI HORI EZ BADA BIDERATZEN JARDUERA OSAGARRIETAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA GALDUKO DU**